

UROLA KOSTAKO HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS

ASTEAZKENA, 2023KO

AZAROAREN 15A

XX. URTEA, 5.467. ZENBAKIA

«Oso garrantzitsua da prostituzioa banalizatzeari uztea»

LUCIA NIETO

EMARGI ELKARTEKO KIDEA

Sexu indarkeriaz, krimen antolatuz eta prostituzioaz hitzaldia emango du gaur, Getarian. Pornografiak eta prostituzioak armek eta drogek baino diru gehiago mugitzen dutela nabarmendu du, eta prostituzioan aritzen diren emakumeen %87k trauma osteko estresa izaten dutela // 4

UTZITAKOA

«Joko Panamerikarrak dira amets handiena uruguaitar batentzat»

LEANDRO SALVAGNO

ARRAUNLARIA

Uruguaiakoa jaiotzez, Orion aritzen da arraunean Salvagno; aulki mugikorra du benetako pasio. Joko Panamerikarretan hiru domina poltsikoratuta, 2019koa «bidegabekeria» izan zela erakutsi dutela dio // 6

Proiektua martxan, LGTB+ pertsonen errealitateak ezagutzeko

Azpeitiko Udalak ekintza plana osatu nahi du kolektiboko kideen bizi baldintzak hobetzeko. Herritarrak ekarpenak egitera animatu dituzte // 5

Azkoitia Lagunkoia taldeak koordinazioa aldatu du

Aurrerantzean, herriko hainbat talderen esku egongo da egitasmoa. Adinekoen ongizatea sustatzeko lanean jarraituko dute // 7



azkuelek

Aurrekontu pertsonalizatuak



Sukalde, bainugela eta etxeko instalazio elektrikoek **berrikuntzak**

Zigordia kalea, 11 · Araba kalea, 41 (Eroski ondoan) ZARAUTZ · 943-13 04 33 - 943-13 33 08 - 619 52 35 39
azkuelek.com · azkuelek@gmail.com ·

Dena prest indarberrituta datorren 44. Bikote Mistoien Krosari ekiteko

Zarautz Rugby Taldeak antolatu du proba bigarren urtez, atletismo taldeko arduradun berrien laguntzarekin • Helduen lasterketarekin batera, gaztetxoena ere egingo dute berriro

-JABI GONZALEZ TOSTON

Azaroa erdira iritsita, gero eta gertuago dago abendua, eta, ondorioz, baita Zarauzko Bikote Mistoien Krosa ere. Urteko azken hilabeteko lehenengo igandean jokatu ohi dute, eta halaxe egingo dute aurten ere, abenduaren 3rako antolatu baitute.

Probaren 44. edizioa izango da aurtengoa, eta aurrekoa bezalaxe, ZRT Zarautz Rugby Taldeak antolatu du. Hain justu, iaz hartu zion lekukoa Txumai Fernandez ZKE Zarautz Kirol Elkartearen atletismo taldeko arduradun berrien ohia, hark 30 urte luzez lasterketa antolatu ondoren. Dena den, aurtengoan ZRTk ez du bere gain hartu proba antolatzeko ardura osoa; izan ere, ZKEko atletismo sailako arduradun berrien laguntza ere izan du, Ibai Beraziertorena eta Naiara Egimendiarena, alegia. Biak buru belarri aritu dira probaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko, datoren urtean atletismo sailaren eskuetara itzuliko baita antolaketa.

Ibilbideari erreparatuta, bestalde, antolatzaileek zehaztu



Egimendia, Illarramendi eta Collantes. ARITZ MUTIOZABAL

dute iazko berbera izango dela, eta ia 8 kilometro egin beharko dituztela korrikalariek; 7,8 zehatzago esateko. Aritzbataldetik abiatuko dira 11:00etan, eta herri barruan bi itzuli eta erdi eman ondoren, Lege Zaharren Enparantzan izango dute helmuga.

Bada, lasterketan parte hartu nahi dutenek herrikrosa.eus atarian eman dezakete izena joan den urriaz geroztik. Gizon eta emakume banak osatutakoak izan beharko dute bikoteek, eta proba egunean bertan ere izango dute inskripzioa egiteko aukera, lasterketa abiatu baino ordubete lehenago itxiko baitute izena emateko epea; tokia geratzen bada, betiere, 700 bikotekoa da antolatzaileek aurtengo edizio-rako ezarri duten muga, eta ohartarazi dute hiru euro garestiagoa izango dela inskripzioa azken egunean; izan ere, 33 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak, 30 beharrean. Inskripzioarekin batera kamiseta, hornidura, proba amaierako pintxo eta zozketarako txartela izango dituzte parte hartzaileek.

Izen emateari lotuta, era berean, Egimendiak adierazi du «bide onetik» doala, iazko kopurua aintzat hartuta. 560 bikotek parte hartu zuten iaz, eta Inaxio Illarramendi Kirol zinegotziak nabarmendu du aurten gehiago izatea espero duela, «urtetik urtera parte hartzea gora egiten ari delako».

Haurren proba bigarrenez

Ibilbide berriarekin batera, haurren lasterketa da ZRTk Bikote Mistoien Krosari egin dion ekarpen nagusia, eta aurten bigarren ez antolatu dute. 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago, eta helduen proba bezalaxe, mistoa izango da gaztetxoena ere. Gainera, pertsona heldu batekin osatu ahaliko dute bikotea. Ehun bikoterentzako plazak ahalbidetu dituzte, eta 10 euro balio ditu inskripzioak (12 egunean bertan egingez gero).

Helduen proba amaitu ondoren, 12:00etan hasiko da umee- na, eta 2 kilometrokoa izango da; Aritzbataldetik Lege Zaharren Enparantzara artekoa hori ere.

Beste autobus hibrido bat izango da herrian aurrerantzean

Ibilgailuak ia 280.000 euroko kostua izan du, eta udalak jada gehitu du zerbitzura • Hainbat lineatan izango da erabilgarri, «erabiltzaile guztiek goza dezaten»

-MIREIA GALARZA BASTIDA

Zarauzko Udalak propulzio hibridoko beste autobus bat gehitu du Hiribusaren zerbitzura. Horrela, aurrerantzean, mota horretako lau autobus izango ditu herriak, «garraio publikoaren zerbitzua indartzeko». Izan ere, Iker Basurko Mugikortasun zinegotziak azaldu duenez, azken hila- beteotan autobusek matxurak izan dituzte, eta horrek zerbitzua «kaltetu» du. Hori horrela, Basurko argudiatu du aipatu ibilgailua gehitzea erabaki dutela, «herriko zerbitzua normaltasunera itzul dadin, lizitazio berriko autobusak iritsi bitartean».

Autobus hibridoak 279.000 euroko kostua izan du (BEZik gabe), eta joan zen astean gehitu zuen udalak zerbitzura. Hainbat lineatan ibiliko da, «erabiltzaile guztiek gozatu ahal izan dezaten». Gainera, zinegotziak aipa-

tutako lizitazio berriko autobus elektrikoak iristen direnean, zerbitzuan jarraituko du berriei laguntzeko.

Autobus elektrikoak

Zarauzko Udalak laster ebatziko du hiru autobus elektriko esku- ratzeko abian duen lizitazio hori (aurrekontua 1.730.000 eurokoa izango da gehienez, BEZik gabe), eta kotxetegiaren kargatzeko postuak ere jarriko dituzte. Inbertsio horretarako, 934.400 euroko laguntza lortu du udalak Next Generation funtsetatik.

«Gaur egun, mota horretako ibilgailuen eskari handia dela eta, autobus elektrikoak entregatzeko epeak urtetik oso gora daude. Horregatik, epeak laburtzeko asmoz, ibilgailuak entregatzeko epeei lizitazioan garrantzia ematea erabaki dugu», argitu du Basurkoko.

AEK-k hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako

-ARITZ MUTIOZABAL

AEK-k hiru ekintza bateratu antolatu ditu aste honetarako: Urola Kostako Mintzalagun egitasmoaren hasiera ekitaldia, Euskararen Aldeko Lasterketa eta AEKalean Eguna, hain zuzen ere. Mintzalagun egitasmoaren ikasturte hasierako emanaldia bihar izango da, 19:00etan, Zarauzko Modelo aretoan, eta Ixabel Agirresarobe kontalariak herri ipuinak izango ditu kontagai.

Larunbatean, berri, Euskararen Aldeko Lasterketa jokatu- ko dute. Irailean egin ohi dute, Euskaraz Bizi Egunean, baina euria

tarteko atzeratzea erabaki zuten. 11:00etan izango da proba, Musika Plazatik abiatuta, eta parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, 8 euro ordainduta.

Egun horretan bertan, AEKalean Eguna ere ospatuko dute, eta, besteak beste, bisita eskaini- ko dute parrokiako arkeologia eta monumentu multzora; izena eman nahi izanez gero, Urola Kostako Mintzalagun dinamiza- tzaileari edo Zarauzko AEKri ja- kinarazi behar zaio. Jardunaldia biribiltzeko, Indabe taldeak kon- tertua eskainiko du 13:00etan.

Iragarki laburrak

Lan eskaintza

Zarautz. Zarauzko Eroskiko ka- fetegian, pertsona bat behar da sukaldarako lanaldi erdian, aste- lehenetik larunbatera. Interesa duena bertatik pasa dadila.

Alokagari

Zarautz. San Pelaion, bi logela- ren alokairua. Txokodun jardun pribatuarekin. Epe luzerako, konfiantzazko bi emakume pi- sukideren bila nabil. Animalia- rik gabe. Bakoitzeko 525 euro hi- lero, eta etxeko gastuak hiruron artean partekatuko. Ana: 667 33 8727.

Zenbait berrikuntzarekin dator Azpeitiko 2023ko San Silbestre proba

Lasterketa inklusiboaren eta lasterketa nagusiaren artean, proba laburrago bat egingo dute, 12 urtetik gorakoentzat

• Gaur zabalduko dute lasterketan izena emateko epea

-IHINTZA ELUSTONDO

Azpeitia

Gero eta hurbilago dago urtearen amaiera, eta Xeye atletismo taldekoak dagoeneko hasi dira abenduaren 31ko San Silbestre lasterketa prestatzen. Iazko lelo bera izango du probaren 22. edizioak: *Ondo bukau, hobeto hasi!*. Dena den, betiko ezaugarriak ez ezik, hainbat berrikuntza ere izango ditu aurtengo lasterketa.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 2023. urteko ibilbideari «hobekuntza batzuk» txertatuko dizkiete, baina distantzia mantendu egingo dute; hau da, sei kilometroko ibilbidea izango da. Ohi bezala, 12:00etan Azpeitiko plazatik abiatuko da lasterketa. Horrez gain, azken urteetan ohiko bilakatu den lasterketa inklusiboa ere egingo dute, 11:00etan. Dena den, berrikuntza bat ere izango da aurtengoan: lasterketa inklusiboaren eta lasterketa nagusiaren artean, itzuli bateko lasterketa motzagoa egingo dute, 11:30ean hasita, 12 urtetik gora izan eta korrika egin nahi dutenei zuzenduta. Izan ere, lasterketa nagusia 14 urtetik



Iazko Azpeitiko San Silbestre lasterketa. ANDONI ELDUAIEN

aurrerakoei zuzenduta dago, eta «gazteagoek ere urte amaiera modu berean agurtzeko aukera izan dezaten» sortu dute proba hori. Lasterketa motz horretan, gaztetxoek aparte, helduek ere parte hartu ahal izango dute, gurasoek eta seme-alabek bat egin nahi badute. Modu horretan, antolatzaileek «jai giroa» sortu nahi

dute urteko azken egunean Azpeitiko erdigunean.

Izen ematea, gaurtik

Gaur zabalduko dute San Silbestre lasterketarako izen ematea. Izen ematea 7 euro, 12 euro edo 15 euro kostatuko da: 7 euro, kamisetarik gabe; 12 euro, kamisetarekin; 15 euro, bi lasterketak

Beste lasterketa batzuetako izen emateak

Azaroaren 25ean, Azkoitiko XVIII. Herri Lasterketa jokatu-ko da, 16:30ean Azkoitiko plazatik irtenda. 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariak. Izen ematea zabalik dago herrikrosa.eus webgunean. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute, eta 13 euro ordaindu beharko da izen ematea. 350 kirolarik parte hartu ahaliko dute proban, eta atzo goizera 217 lagunek zuten izena emanda.

Domusa Teknik 40 MLK mendiko lasterketa jokatu-ko da Azpeitian datorren urteko maiatzaren 4an, eta egun horretan bi lasterketa izango dira: 65 kilometrokoa bat, eta 26 kilometrokoa bestea. Bi proba horietarako izen ematea bihar, 18:00etan, zabalduko dute.

egin nahi dituztenek. Lasterketa bakoitzean, 3 euro kostatuko da aseguru. Izen emateak kirol-probak.com plataforman egin ahal izango dira, eta parte hartzaile kopurua 900 korrikalari-entzat mugatu dute lasterketa nagusian. Joan den urtean baino ehun dortsalek gehiago jarri dituzte, izan ere, 2022an eguna iritsi aurretik amaitu ziren dortsalek guztiak.

Dagoeneko diseinatu dute lasterketarako kamiseta. Hain zuzen ere, birziklatutako materialarekin egin dute; guztira, 850 kamiseta sortu dituzte. Kamisetak agortzen badira ere, izen emateak zabalik jarraituko du, 7 eurotan.

Jon Alberdi pilotari azpeitiarrak ez du Baikon jarraituko

-**MAIALEN ETXANIZ** *Azpeitia*
Jon Alberdi (Azpeitia, 1999) pilotariak ez du Baiko Pilota enpresan jarraituko. Joan den ostiralean eman zuen berria enpresak berak, eta jakinarazi zuen Azpeitiko pilotariak ez duela onartu Baiko Pilotak egindako kontratu proposamena. Hain zuzen, kontratua berritzeko eskaintza egin zion enpresak Alberdiri, baina hark ez zuen onartu. Enpresak ez zuen kontratu proposamenaren xehetasunik eman.

Duela bost urte, 2018ko irailaren 28an, egin zuen debuta profesionalean Jon Alberdik Asegarcerekin, ondoren Baiko izango zena. Bost denboraldiz enpresa horretan aritu ostean, joan zen azaroaren 4an jokatu zuen azken partida aurrelari azpeitiarrak Baikonera, Gasteizko Ogeta pilotalekuan.

Alberdik ez du jakinarazi non jarraituko duen ibilbidea. Baiko Pilotak, bere aldetik, zorte ona opa dio azpeitiarrari.

Emakumeen III. Anaitasuna Kakute xake lehia jokatu-ko dute igandean

-**ANE OLAIZOLA** *Azkoitia*

Igandean Emakumeen III. Anaitasuna-Kakute txapelketa jokatu-ko dute Azkoitian, Anaitasuna Kakute xake taldearen lokalean, klubeko jokalariei zein bertan parte hartu nahi duten emakume guztiei zuzenduta. Blitz modalitatean eramango dute txapelketa aurrera; hau da, hiru minutuko partida azkarrek jokatu-ko dituzte, eta txapelketarako izena ematen dutenen kopurua- ren arabera egingo dituzten txanda zein jokaldi bakoitzeko bi segundo gehiago izango dituzte. Azkoitiko xake klubak adierazi duenez, igandeko txapelketa «aukera ederra» izango da abenduaren 16an Elgoibarren (Gipuzkoa) jokatu-ko duten txapelketarako prestatzeko.

Zabaldu dute Orioko San Silbestre lasterketan izena emateko epea

-AIORA LARRAÑAGA

SOLABERRIETA Orio

Urtea kirola eginez eta umore onez bukatzeko, San Silbestre lasterketa antolatuko Orioko Atletismo Taldeak, Orioko Udaren laguntzarekin, beste behin «kaleak irribarre handiz eta txalo beroz» josi nahi dituztelako urtearen azken egunean. Zirkuitua urterokoa izango bada ere, aldatu izango dira helduen lasterketako izen ematean, abendua-

ren 31n bertan ezingo delako proban parte hartzeko izenik eman. Abenduaren 30ean, 20:00etan itxiko dute izena emateko epea, eta nahi duenak dagoeneko badu horretarako aukera kronoak.com atarian.

Bestalde, helduen lasterketan parte hartzeko gutxienez 16 urte izan beharko direla ere nabarmendu dute antolatzaileek. 14 eta 15 urteko gaztetxoek ere parte hartu dezakete, baina horretarako ezinbestekoa izango da gurasoek baimena emateko orria betetzea.

Sariak izango dira lehenengo postuetan sailkatzen diren korrikalari-entzat, eta parte hartzaile guztien artean ere hainbat sari zozkatuko dituzte.

Haurren lasterketa

Umeentzako San Silbestre lasterketa ere prestatuko ditu Orioko Atletismo Taldeak aben-



UTZITAKOIA

«Pornografiak ere hitz egin behar da prostituzioaz ari garenean»

LUCIA NIETO EMARGI ELKARTEKO KIDEA

‘Sexu indarkeriaren, krimen antolatuen eta prostituzioaren arteko loturak. Nola landu?’ hitzaldia emango du Lucia Nietok bihar Getarian, Elan-Euskadiren eskutik.

–ONINTZA LETE ARRIETA

Elan-Euskadik antolatuta, sexu indarkeriaren, krimen antolatuen eta prostituzioaren arteko loturez hitzaldia emango du bihar Getarian Lucia Nieto (Medina del Campo, Espainia, 1993) Emargi elkarteak. Solasaldia 19:00etan hasiko da, Ulpiano aretoan. Hitzaldiaren atarian, saio horren mamiaz aritu da Nieto Hitzarekin.

Oso gai zehatzaz hitz egingo duzu bihar Getarian. Zer kontatuko duzu?

Prostituzio sistemak nola funtzionatzaren duen azalduko dut, eta kontatuko dut zer agentek osatzen duten sistema hori. Estatutuak sartzen dira hor, haien bitartez egiten baitira legeak ekintza horiek onartzeko edo ez onartzeko. Ikusiko dugu ea estatutuak nolabait konplizeak diren ala ez, baduten motaren bateko interesik... Prostituzioaren gaia lantzeko dauden hainbat modelo teoriko ere ikusiko ditugu.

Proxenetismoaz ere hitz egingo dut, eta horrek nola funtzionatzaren duen azalduko dut; emakumezkoen salerosketa zikloa nolako den ere azalduko dut. Herrialde batzuetan lan gisa hartzen da prostituzioa, esaterako Alemanian; han emakumeek alta hartzen dute Gizarte Segurantzaz. Baina orain atzera egin nahi du Alemaniak, konturatu direlako ez daudela puta izan nahi duten hainbeste emakume alemaniar; eskaria, berriz, handia da. Eta, beraz, emakumeen salerosketa handitzen da: herrialde txiroetako emakumeek joan behar dute sexu esplotazioko ‘lanpostu’ horiek betetzera.

Espainiako Estatuan, berriz, alegala da prostituzioa.

Hala da. Ez dago erregulatuta, eta polizia edo epaileak emakumeen salerosketa jazartzen saiatzen direnean, oso zaila egiten zaie, ez dagoelako legerik esaten duenik prostituitzen duen horrela delitua egiten duela.

Pornografiak ere arituko zara.

Bai, prostituzioaren marketina delako pornografia: Interneten diru gehien mugitzen duen negozioa da, eta mundu mailan, prostituzioak eta pornografiak armek eta drogek baino diru gehiago mugitzen dute. Horregatik, interes oso handia dago gaztetxoak –12-13 urterekin hasi ohi dira– kontsumitzaile bihurtzeko.



«Prostituzioan aritzen diren emakumeen %87k trauma osteko estresa izaten dute»

daitezen eta erotizatu dezaten bideo horietan ikusten duten sexu indarkeria. Izan ere, ez dauka zerikusirik sexu harremanekin, baizik eta indarkeriarekin eta emakumei min ematearekin. Praktika horiek erotizatuta, horiek gauzatu nahi dituzte.

Arlo afektibo-sexualean hezkuntza falta dute, eta iristen zaizkien mezu bakarrak pornografia bidezkoak dira. Beraz, indarkeria ekintzak ikasten dituzte, eta horiek gauzatu nahi dituzte. Horregatik ugaritu dira talde bortxaketak eta adin txikikoen arteko bortxaketak, eta neska bategi ezetz esan baldin badezake, mutil horiek badakite badaudela beste emakume batzuk, dirua jarritz gero, ekintza horiek egingo dituztenak. Ez da egia pornografia ez dela erreala, fikzioa baizik edo fantasia; erreala da, bideo horietan emakumei egiten zaizkien gauzak benetakoak direlako, eta pornografiaren barruan emakumeen salerosketa asko dagoelako; prostituziorako sarbidea da. Azken batean, gauza bera da; soilik, batean bideo kamera bat dagoela.

Krimen antolatuz zer daukazu esateko?

Espainiako Estatuan, egunean bost milioi euro baino gehiago

mugitzen ditu prostituzioak, eta beraz, negozio oso errentagarria da, ez daukalako lehengaia sortu beharrik; altzari fabrika baldin badaukazu egurra erosi beharko duzu, makinak... Pertsonen trafikatzeari, ordea, gastu horiek guztiak aurrezten dituzu. Bizi garen sistema patriarkal eta neoliberal honetan produktu errentagarrienak pertsonak dira, gorputzak, eta beti aurrena emakumeak eta neskatxak, prostituzioan hasteko adina 13 urtekoa delako. Oso garrantzitsua da gizarteak kontzientzia hartzea eta prostituzioa banalizatzei uztea; ezin dugu hitz egin edozer lan balitz bezala, ez delako. Emakume horientzat ondorio psikologiko oso larriak ditu; Europako ikerketen arabera, prostituzioan aritzen diren emakumeen %87k trauma osteko estresa dute. Geratik itzuli diren gizonezkoek pairatzen duten ondorio bera da.

Emargi kidea zara. Zer egiten duzue elkarte horretan?

Emargiren helburua da adin guztietako emakumeen emantzipazioa lortzea. Hainbat arlotan egiten dugu lan: batetik, indarkeria sexualaren inguruko ikerketa, sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzen dugu. Batez ere eskolatan, institutuetan, ematen ditugu formazio saioak indarkeria sexualaren aurka eta hezkuntza afektibo-sexualaren inguruan, etika feministaren ikuspegitik. Formazioa ikasleei, gurasoei nahiz irakasleei ematen diegu, gaia transbertsala dela uste dugulako. Aldi berean, eskolatan datu bilketa egiten dugu, jakiteko nolako kontzientziazioa duten eta nolako indarkeria sexuala jasaten duten, ondoren eskolak berak, gurasoek edo herri horretako udalak jakin dezaten zer esku hartze behar diren. Bestetik, egoitza bera dago; harreman osasuntsuak sortzeko espazioa da, soilik emakumeentzat. Azkenik, politikan ere eragin nahi dugu. Esaterako, orain aste batzuk Europako Parlamentuko jardunaldi batzuetan parte hartu zuen gure elkarteak kidea Amelia Tiganus ekintzaile feministak: prostituzioa abolitzeaz etabaidatzen aritu ziren txosten baten bueltan. Bozketa ez zen loteslea, baina Europako Parlamentuak erabaki zuen aboliitu egin behar dela prostituzioa, giza eskubideen kontrako jarduerak delako. Pauso garrantzitsua iruditzen zaigu, eta orain fokua Espainiako Estatuan dago jarrita, Europa osoan bertan kontsumitzen delako prostituzio gehien.

Azkoitia Ueman sartzeko eskatu du EH Bilduk

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateak Azkoitiko euskararen garapenerako bidea «erraztu» egingo duela uste dute.

IRAIA OTEIZA Azkoitia

Azkoitia Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (Uema) sartu beharra dagoela berretsi du Azkoitiko EH Bilduk, eta udalean 2024rako aurrekontuak lantzen ari diren momentua aprobetxa-

tu du adierazpen hori publiko egiteko. Ohar bidez, herriko euskararen aberastasuna etorkizuneari ere mantendu beharra dagoela azpimarratu du koalizioak, eta horretarako neurrizko hizkuntza politikak behar direla

adierazi du. Hori horrela, EH Bilduk uste du Uemako kide izateak Azkoitiko euskararen garapenerako bidea «erraztu» egingo duela.

Koalizioak adierazi duenez, Uemak gaur egun hainbat ildo

eta zerbitzu eskaintzen ditu euskaraz bizi nahi duten udalerrien beharrei erantzuteko; besteak beste, udalerri euskaldunen zaintza garapena eta herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea.

Egun, 101 udalerri osatzen dute Uema, eta Azkoitia 102.a izatea da koalizioaren nahia: «Azkoitian euskararen aldeko lan bikaina egiten ari dira ikastetxeak, AEK, Maxixatzen Euskaldunon Elkarteak, udalak sustatutako Euskara Mahaia eta hainbat norbanako euskaltzale. Talde horien urteetako lana eta ahalegina osatzera datorren proposamena da hau, denak direlako

osagarriak, denak direlako beharrezkoak».

Horrez gain, Uemako kide izatea «euskara jasaten ari den oldarraldi judizialari erantzuteko modu ezin hobe» dela ere baieztatu dute: «Izan gaitezen Uemako 102. udalerria, euskaraz bizi nahi dugulako, euskaraz garulako». Hala, Ueman sartzeko «apustu irmoa» egin duela berretsi du koalizioak, eta udaleko alderdi zein herriko eragile sozialei pauso hori guztien artean emateko deia egin die EH Bilduk.

Urola Kostatik Uemako kideak dira Aizarnazabal, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orrio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

LGTBI+ pertsonen errealitateak ezagutzeko egitasmoa, abian

Herrirako ekintza plan bat osatu nahi du Azpeitiko Udalak, Eihera kooperatibaren laguntzarekin • Ekarpinak egitera animatu dituzte herritarrek

IHINTZA ELUSTONDO

Azpeitia

Eihera kooperatibaren laguntzaz, Azpeitiko LGTBI+ pertsonen errealitateak ezagutu eta ekintza plan bat osatu nahi du Azpeitiko Udalak. Helburua da pertsona horien bizi baldintzak hobetu ahal izateko neurri eta politika zehatzak diseinatu ahal izatea.

Egitasmoak hainbat fase izanango ditu. Hasteko, herriko LGTBI+ pertsonekin, eragile feministekin, elkarrekin eta norbanakoekin bilduko dira Eiherako teknikariak, kolektiboaren beharrik, aldarrikapenak eta ikuspegiak jasotzeko. Ondoren, udaleko sailekin lansaioak egingo dituzte, administrazioaren barruan dauden mugak, zailtasunak eta aukerak zein diren identifikatzeko. Azkenik, egindako ibilbidearen berri eman eta sortutako neurrien eta politiken aurkezpena egingo dute.

Egitasmoa behar bezala garatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da LGTBI+ kolektiboak

osatzen duten herritarren bizi-penak, iritziak eta errealitateak jasotzea. Horregatik, beren ekarpena egitera animatu nahi ditu udalak herritarrek. Parte hartu ahal izateko, nahikoa izango da ehiera@eihera.eus helbidera mezu bat idaztea, edo 623 30 71 59 telefono zenbakira deitzea. Ekarpinak guztiz anonimoak izango dira.

Askatasuna jomuga

Abiatu duten egitasmoaren bitartez, alde batetik, «LGTBI+ pertsonen eta kolektiboaren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak» diseinatu nahi ditu Azpeitiko Udalak, baina, horrez gain, beste helburu batzuk ere baditu erakundeak: «Herrian sentsibilizazioa eta lanketa egitea, berdintasun politiken LGTBI+ gaia zeharkakotasunez lantzea, herriko LGTBI+ norbanakoei ahotsa, baliabideak eta interlokuzioa ematea eta bermatzea; eta udalaren tzentz egingarriak diren neurriak eskuragarri izan eta abian jar-



Egitasmoaren sustatzaileak, Emakumeen Txokoan. AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko Udalak «herritar guztien askatasuna eta eskubide berdintasuna» bermatu nahi ditu, eta, horretarako, «inolak diskriminaziorik eta zapalketarik gabeko jendartea eraikitze lan egiten jarraitu behar» duela nabarmendu du erakundeak. «Alde horretatik, funtsezkoa da sexu identitateari, desiren orientazioari eta genero rolei buruzko aurreiritziak eta estereotipoak zokoratzea eta ezabatzea, egiazko berdintasuna lortzeko urrats sendoak eginez», erantsi du udalak.

Zozketa

29 KIROLA

Gipuzkoa basket
Caceres Patrimonio de la Humanidad

[Zozketa zenbakia: 29]

Sarrera bikoitz bat

Partida eguna, ordua: azaroak 19 [17:00]

Lekua: Donostiako IIIunbe estadioan

Zozketan parte hartzeko deitua: 943-56 01 64 zenbakia edo webguneko TXOKOA atalean izena eman, gaurtik azaroaren 16ko eguerdiko 12:00ak baino lehen. Sari-dunen izenak ostiraletan argitaratuko ditugu.

«Hiru domina lortuta erakutsi dugu 2019koa bidegabekeria izan zela»

LEANDRO SALVAGNO ARRAUNLARIA

Izatez uruguaitarra da Leandro Salvagno (1984), baina azken urteak Orion eman ditu arraunean. Aulki mugikorra du pasio, eta Joko Panamerikarretan hiru domina lortu berri itzuli da herrira.

—ANDREA ZIPITRIA

Hiru dominarekin itzuli zara Joko Panamerikarretatik Oriora. Zer-nolako lorpena izan da zuretzat?

Oso garrantzitsua izan da niretzat. Hiru dominetarik bat urrezkoa da, bigarrena zilarrezkoa eta hirugarren bat ere bada, brontzezkoa. Horietatik guztietatik bereziena urrezkoa dela esango nuke, baina ez bakarrik lorpen handiena hori delako. Duela lau urte ere lortu genuen urrea txapelketa horretan, baina orduan kendu egin ziguten domina irabazi eta hogeie egunera, taldeki-deetako batek positibo eman zuelako kontrol ofizial batean, gaixotasun bat tratatzeko botika bat hartzeagatik. Izan ere, lehiaketa batzordeak botika hura ez zuen debekatutako zerrendan. Horregatik, aurten erakutsi nahi genuen 2019koa bidegabekeria izan zela. Egia esanda, lortu dugu hori, eta oso pozik nago. Azken finean, Uruguai bezalako herrialde txiki batean Joko Panamerikarretara iristea da kirolari batek izan dezakeen ametsik handiena, eta nire herrialdeko ordezkari izatea benetan garrantzitsua da niretzat.

Guztira, zenbat domina lortu dituzu zure kirol ibilbidean?

Guztira, bost domina lortu ditut Joko Panamerikarretan. Uruguai osoan, ez da halako lorpenik lortu duen arraunlaririk. Kopurua alde batera utzita, nire herrialdean hainbeste urteren aldearekin halako garaipen bat lortu duen arraunlari bakarra naiz; lehen dominatik azkenera arte, hogeie urte igaro dira, hain zuzen ere.

“

«2019an ere lortu genuen urrezko domina, baina orduan kendu egin ziguten»

«Garaiz iritsi nahi nuen nire semearen jaiotzara, eta hala izan da; pozik nago»

Nola prestatzen zara halako txapelketetan parte hartzeko? Duela hamabost urte iritsi nintzen Espainiara traineruetan lehiatzen hasteko [gero etorri zen Euskal Herrira], eta hasiera-

tik bi modalitateak, aulki mugikorra eta tostako arraunketa, uzartu ditut. Trainerua asko gustatzen zait, baina arraunerako dudak pasioa aulki mugikorrari esker lortu dut. Beraz, egunero koan, goizetan aulki mugikorrean ibiltzen naiz, eta arratsaldeetan entrenatzen dut taldekideekin. Arrauna kirol sakrifikatua da, ordu asko eskaini behar zaizkio.

Entrenatzeko moduari dagokionez, alderik izango da bi modalitateen artean, ezta?

Bai, noski. Azkenengo hilabeteetan aldatzen da entrenatzeko modua, batez ere. Aulki mugikorra esplosiboagoa da, eta hankak gehiago erabiltzen dira.

Atsedetik ez duzu hartzen zuk...

Ez, tostako arraunketa denboraldia amaitu berri jarri nintzen buru-belarri arraunketa olinpikoarekin. Espainiako Txapelketa ere jokatu genuen Sevillan, eta laukoan lehen postuan amaitu genuen lehiaketa. Argentinara joan nintzen ondoren entrenatzera, eta Joko Panamerikarretarako hamar egunen faltan iritsi ginen Txilera bertara.

Nolatan amaitu duzu Orion?

Aulki mugikorra izan da arrazoi nagusienetako bat. Gaur egun elkarte gutxi eskaintzen dute aulki mugikorra eta tostako arraunketa egiteko aukera; Orio Arraunketa Elkartek baditu horretarako azpiegiturak, eta hala iritsi nintzen Oriora, 2019an.

Orion arraunak berebiziko garrantzia du. Uruguain modu berean bizitzen al da arrauna?

Orion arraunak izugarriko garrantzia du. Herriari oso errotuta dagoen kirola da, eta esango nuke hori ez dela beste inon gertatzen. Uruguain arrauna kirol minoritarioa da, nahiz eta nazioartean arraunean lortu dituen domina gehien herrialde horrek.



UTZITAKOA

Han, futbola da herriarren kirol gustukoena, eta beste guztiak itzalean daude.

2019an Joko Panamerikarretan ere urrezko domina eskuratu genuenean, izugarriko ongietorria egin zidan Orioko herriak. Uruguairaino iritsi ziren bideo horiek, eta bertako hainbat telebista katetan zabaldu zituzten, Orion arrauna nola bizi den adieraziz.

Oriora 2019an iritsi zinela aipatu duzu, baina aurrez hainbat izan dira igaro dituzun arraun taldeak.

Bai, hala da: zortzi urte egin ditut Kaikuko traineruan; hiru urtez ibili naiz Zierbenan, eta Astilleron ere bai bi urtez. Momentu honetan aulki mugikorra nire grinagatik praktikatzen dut. Izan ere, esfortzu ekonomiko handia eskatzen du nazioarteko lehiaketetan parte hartzeak.

Begi bistan da ibilbide luzea duzula arraunaren munduan. Arantzarik ba al duzu gaur-gaurkoz?

Ez, orokorrean esango nuke ezetz. Niretzako ohore bat da nire herrialdea ordezkatzeko aukera izatea hainbeste urtez. Pozik nago egindako ahaleginarekin eta kirol arloan lortutako guztiarekin. Behin baino gehiagotan pentsatu dut, ordea, txapelketaren atarian geratu nintzen uneaz. Hain zuzen ere, Japoniako Olinpiar Jokoetan parte hartzeko kanporaketa jokatzeko aukera izan nuen, baina nire ustez, ez nuen behar bezala aprobetxatu; ez nintzen oso ondo prestatu, oso gaztea nintzen orduan eta.

Arraun ibilbide luze honetan lagundu dizun norbait aipatu nahi al zenuke?

Bai, eskerrak eman nahiko nizkieke nire familiarteko guztiei; modu batera edo bestera babesu nauten herriarrei, baita Orio Arraunketa Elkarteari ere, nire ametsak errealitate bihurtzen laguntzeagatik. Azken urteetan entrenatzaile izan dudana Jon Salsamendientzat ere esker hitzak baino ez ditut. Izan ere, asko lagundu dit berriz ere Joko Panamerikarretarako prestaketa lanetan, eta guztia ezin hobeto aterata da.

Aita ere izan zara, orain dela egun gutxi batzuk.

Bai, hasiera batean Joko Panamerikarretan nintzela izan behar nuen aita, eta hori buruhauste handia izan da niretzat. Garaiz iritsi nahi nuen nire semearen jaiotzara, eta hori ere biribil aterata da azkenean, Oriora iritsi eta segituan jaio baita Daren. Egia esan, oso pozik nago orain.



Joko Panamerikarretan urrea irabazi duen laukoa. UTZITAKOA

Akitania-Baskoniaz hitzaldia izango da gaur Azpeitian

AZPEITIA // Urolako en Nafar Zuzterak taldeak bi hitzaldi antolatatu ditu hil honetarako; gaur eta hileren 29an izango dira saioak, biak 19:00etan hasita, Azoka Plazako lehenengo pisuko aretoan. Gaur Iñaki Lopez de Luzuriagak hitz egingo du, *Akitania-Baskonia eta Franko Karolingioen Erresuma* gai hartuta. 29ko hitzaldia, berri, Paulo Arrietak emango du *k.a. III. mendeko Beltine eta k.o. III. mendeko Belean, 600 urte bitartea, eskuera irizpide* gaiaren inguruan.

Landare exotiko inbaditzaileak hizpide, Azkoitia

AZKOITIA // Urola Bizirik taldeak antolatutako IV. Ingurumen Jardunaldien barruan, *Landare exotiko inbaditzaileak* izenburuko hitzaldia izango da gaur, 19:00etan, Azkoitiko Elkargunean. Hizlaria Aitziber Sarobe Biologian dokorea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea izango da.

Azkoitiko Kirol Sarearen bigarren bilera izango da bihar

AZKOITIA // Azkoitiko Kirol Sarearen bigarren bilera izango dute bihar Elkarguneko Oteiza aretoan, 19:00etan hasita. Lehen bileran adostu bezala, aurkezpenak egiteko baliatuko dute hitzordua, elkartearen eta norbanakoen harremanak saretzen hasteko. Ondoren, aurrera begira zer landu eta zer ekintza egin dituzten adostuko dute.

Eskualdaketa, adinekoentzat herri lagunkoiagoa sortzeko asmoz

Azkoitia Lagunkoia taldeak koordinazio aldaketa egin du • Aurrerantzean, herriko eragile ezberdinen esku egongo da taldea, adinekoen ongizatea sustatu ahal izateko

–IRAIA OTEIZA Azkoitia

Adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko helburuz sortu zuten Azkoitia Lagunkoia 2017ko maiatzean, Azkoitiko Udalak Euskadi Lagunkoia sarera atxikitzeke hitzarmena sinatu ostean. Euskadi Lagunkoia Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailak sustatu eta Matia fundazioak abiarazitako egitasmoa da, zahartu ahala nork bere ohiko bizimoduarekin jarraitzen laguntzea helburu duena.

Azkoitia Lagunkoia, sei urteko ibilbidearen ostean, koordinazio aldaketa esanguratsua izan du. Hasiera batean, Eusko Jaurlaritza arduratzen zen Lagunkoia sare osoaren koordinazio lanaz, Azkoitiko sarea barne, eta Matia fundazioaren zeregina izaten zen horren jarraipena egitea. Gero, udalaren esku geratu zen lan hori; eta orain egin du koordinazioari lotutako aldaketarik handiena. Aurrerantzean, eragile ezberdinen artean zuzenduko dute Azkoitia Lagunkoia: Izarraitz Lanbide Heziketa, Plaza Ondo jubilatuen elkarte, San Jose egoitza, Azkoitiko Udal, Hurkoa erakundea eta herriarrak izango dira taldearen eragile berriak. Hain zuzen ere, Hurkoaren barruan dagoen Hauskor programako teknikari den Maialen Artetxek koordinatuko du eragile horien lana, besteak beste, programa hori ardu-



Azkoitia Lagunkoia bilera bat. AZKOITIA LAGUNKOIA

ratzen delako hauskortasun kasuei erantzuna emateaz. «Taldea Azkoitia ongi ezagutzen duten hainbat eragileren eskuetan dago orain. Modu horretan, errazagoa izango da herri lagunkoia osatzea», azaldu dute Azkoitia Lagunkoia taldeko kideek.

Sare irekia

Azkoitia Lagunkoia inkesta zabal bat eginez hasi zuen bere ibilbidea 2017an. Azkoitia zenbaterainoko herri lagunkoia zen aztertu zuten, eta eskuratutako informazioa izan da, hain justu, taldearen lan tresna nagusia,

bertan jasotako zenbait gai bideratu ahal izan dituztelako, bereziki irisgarritasunari lotutakoak.

Hortik abiatuta, taldeak zenbait lan esparru zehaztu ditu lenerako. Besteak beste, eraikuntzetako irisgarritasunari, bizi testamentuari, zaintzari zein banketxeetako digitalizazioari buruzko hitzaldiak eta elkarrizketak antolatu dituzte, euren ezagutza zabalduta, gaiaren inguruko hausnarketa bultzatzeko eta herritarrek sentsibilizatzeko.

«Azkoitia Lagunkoia sare irekia da, eta herritar oro dago gonbidatuta taldean parte hartzera.

Zenbat eta iradokizun gehiago izan, orduan eta handiagoa izango da gure ekarpena. Ezin dugu ahaztu egiten ditugun hobekuntzak guztion onerako izango direla», adierazi dute. Taldeko bilerak hilean behin izaten direla gogorazi dute, Elkargunean, 18:00etan. Herritar orok du bertaratzeko aukera.

Bilera horietan, adineko pertsonen zaintzan eta bakardadean jarriko dute, bereziki, arreta, horiek direlako, taldearen araberako, «konpondu beharreko presazko erronkarik garrantzitsuenak».

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain
merkeago
TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

UROLA KOSTAKO HITZA GUKA

Asteazkena, 2023ko azaroaren 15a

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñintza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@uktu.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Ariz Mutiozabal.
Publizitateak: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@uktu.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@uktu.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@uktu.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@uktu.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@uktu.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@uktu.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
zestoa@uktu.eus.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen
arreta zerbitzua
(zalantzak
argitzeko,
harpidedun
egiteko):
943-30 30 35



Goiza



Arratsaldea

Temperatura
V 21°
A 15°

Mareak

Itsasgora	05:08-17:30
Metroak	4,14-3,99
Itsasbehera	11:17-23:33
Metroak	0,73-0,86

zarauzkohitza.eus/ / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, asteazkena

Batzarria

Azpeitia. Aurrekontu parte hartzaileak osatzeko batzar irekiak izango dira ondorengo lekuetan, 19:00etan: Basazabalen, Lasao eta Oñazko elizako lekuan.

Hitzaldia

Azkoitia. IV. Ingurumen Jardu-naldien barruan, *Landare exotiko inbaditzaileak* hitzaldia, 19:00etan, Elkargunean.

Azpeitia. Akitania-Baskonia eta Franko Karolingioen Erresuma solasaldia, Iñaki Lopez de Luzuriagaren eskutik, 19:00etan hasita, Azoka Plazako lehen solairuan.

Proiektzioa

Zestoa. Mendi Astea: Liam Zunegik *Toubkalera igoera eta Erg Cherbibi basamortuan trekkinga* hamar minutu irauten duen bideoa eskainiko du, eta segidan Maddi eta Juankar Alberdi aita-alabek Manasluko gailurrera egindako trekkingaren bideoa emango dute. 19:15ean izango da, Alonderon.

Bihar, osteguna

Antzerkia

Azpeitia. 41. Euskal Antzerki Topaketen barruan, *(H)ondoko gela* antzezlanaren emanaldia Ane Gebara eta Josune Velez de Mendizabal aktoreen eskutik, Dinamo sormen gunean, 19:00etan.

Ipuin kontaketa

Orio. Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa, 5 eta 8 urte arteko haurrentzat. 18:00etatik aurrera, Kultur Etxean.

Zinema

Zumaia. Ostarrera zinema klubaren eskutik, *Upon entry* filmaren emanaldia, 19:00etan, Aita Mariko zinema aretoan.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

'Zauriren bat bistan' izenburupean kaleratu zuen joan den astean Eire Zumaiaiko bikoteak bere lehen EPa. Sei abestiz osaturiko lana aurrerantzean zuzenekoetan entzuteko aukera izango da.

Zauriak sendatzeko doinuak



Eire Salegi eta Eire Maia. ARNAITZ RUBIO APREA

—JUAN LUIS ROMATET

—MARIA MAYA MANTEROLA
Zumaia

Sei kantako EPa plaza-ratu berri du Eire Zumaiaiko bikoteak, *Zauriren bat bistan* izenburupean. Durangoko Azokan salgai izango da beren lehen lana, eta datozen asteetan Euskal Herriko plaza eta gaztetxe ugartan aurkeztuko dute jendaurrean.

Orain arte kaleratutako zenbait abestirekin eta berri batzuekin osatu dute lana, eta Olatz Salvador musikari donostiarrarekin batera sortutako piezak eman dio izena Eire bikotearen lehen lan horri.

Udaberriaren eman zuten lehen kontzertua, Elorrioko (Bizkaia) Gazte Topagunean, eta ordutik zuzenekoetan eta EPa prestatzen aritu ondoren, lan berria argitaratzarekin «arnasa hartuko» dutela diote. Eire Salegiren hitzetan, esfortzua bestelakoa da ilusioarekin egiten denean.

Gogoan dute Zumaiaiko santelmoetan emandako kontzertua ere, «bereziarena» izan baita haien zatit. Lagunen eta senitatekoen babesean eskaini zuten emanaldi hura, baina gogoratu dute bestelako egoerak ere bizi izan dituztela aurretik, Soraluzen (Gipuzkoa), esaterako: «Nork ziurtatuko dizu Lizarrara [Nafarroa] edo Soraluzera zu ikustera joango direla? Bada, Soraluzera ez zen inor etorri. Baina horrelakoak ere pasatu behar dira. Saltoa azkar eman dugu, eta uste dugu bidean zati batzuk galdu ditugula, eta beraz, garrantzitsua da horrelako egoeretan ere egotea».

Izan ere, Eire Maiak eta Eire Salegik *Amaitu baino* lehen beren bigarren abestia kaleratzarekin batera eman zuten saltoa. Esparru pertsonalean, asko eragin zion abestiaren erantzunak Maiari: «Nire buruak airea behar zuen. Lehen atera egiten zitzaizdan hitzak idaztea, baina orain behartu egin behar izan dut neu-

re burua, eta ez zait berdin atera». Salegik, berriz, «maila ez emateatua ere, «bereziarena» izan baita haien zatit. Lagunen eta senitatekoen babesean eskaini zuten emanaldi hura, baina gogoratu dute bestelako egoerak ere bizi izan dituztela aurretik, Soraluzen (Gipuzkoa), esaterako: «Nork ziurtatuko dizu Lizarrara [Nafarroa] edo Soraluzera zu ikustera joango direla? Bada, Soraluzera ez zen inor etorri. Baina horrelakoak ere pasatu behar dira. Saltoa azkar eman dugu, eta uste dugu bidean zati batzuk galdu ditugula, eta beraz, garrantzitsua da horrelako egoeretan ere egotea».

Olatz Salvadorrek kolaboratu du EPari izenburua ematen dion abestian

tzela pentsatzen nuen, baina horrek lagundu dit lan gehiago egiten. Presioa sentitzen dugu asko axola zaigulako proiektu hau. Ekoizle ona izan nahi dut, eta horrek eraman nau exigentzia hau izatera», azaldu du Salegik.

Lana eta zortea

Espero gabeko erantzuna lanaren eta zortearen arteko konbinazio bat dela uste dute Maiak eta Salegik. Bateria jotzailea, baxu jotzailea, abeslaria eta gita-

rrista dira ohiko musika talde bateko partaideak, baina Eirek musika elektronikoa ekoizti arren, «produktu nahiko osoa» egiten dutela uste dute. «Esaten digute ez dela kasualitatea, lana egin dugula honaino iristeko, baina nik garbi daukat gu baino lan gehiago egin duten musikari batzuk ez daudela gure egoera berean. Lana egiteaz gain, zortea ere izan dugu», diote biek.

Lehen bi abestien erantzun horri tiraka atera dute aurkeztu berri duten lana. «Ez geneukan pentsatuta zer egin. Kanta atera genuen, eta ez genuen halako erantzunik espero. Baina guk geuk ere nahi genuen sormen prozesu horretan murgildu», dio Maiak. Abesti asko utzi dituzte EPtik kanpo, baina aipatu dute «gustura» geratu direla bildumako sei horiekin. Aurrerantzean Eireren zuzeneko ugari ikusteko aukera izango da, eta taldeak izango duen ibilbidean deskubrituko dute zer bide hartu nahi duten.